

# Goierritarra

301. zenbakia 2006ko maiatzak 26

**Goierritarra batela**

## LEHORREKO ARRAUNLARIAK



**Dolarea**  
j a t e t x e a

[www.dolarea.net](http://www.dolarea.net)

Nafarroa etorbidea, 21  
20200 Beasain  
T 943 888 829

*Aho finen  
gozámenerako...*




fabrice



**BEROGAS**

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA  
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK  
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK  
BERRIKUNTZA LANAK  
GREMIO GUZTIEN ARDURA

**BERÓGAR**



SUKALDEKO ETA  
BAINUKO ALTZARIAK



**BULEGOAK-LANTEGIA**  
USABAL, 11-A  
TOLOSA  
Tel.: 943 672 620




**ERAKUSKETAK:**  
SAN FRANTZISKO, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 653 307



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*  
**I. Fdez Or naburu Dra.**  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
**A. Ramirez Baigorri Dra.**

*Kursal*  
ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

**943 88 22 51**  
Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**



R.P.S.:3204

## BERTSOTAN

## Zegama-Aizkorri mendi maratoia



Aitzol Barandiaran

Igandean Zeaman zortziak puntuan mundu mailako proba omen da jokuan. Deabrua atzetik balute moduan mendi-maratoilari onenak ziztuan ahuntzak ere ausartzen ez diren lekuan.

Ehundaka kirolari hauentzat Aizkorri goiz baten bihurtuko da inpernu gorri. Itzala ere jota malkarretan korri meriturik ez kendu sufrimendu horri paisaiaz gozatzera ez dira etorri.

*Doinua: Espainian bebera*

Goierritarra

## HAMABOSTEKARIA

## Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

## Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

## Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

## AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Iñaki Murua.
5. **Ingurugiro txokoa:** Ibaialde programa.
6. **Errezeta:** Bakailao kokotxak pikilopiper konfitatuekin.  
**Aholkua:** Eguzkitako betaurrekoak.
7. **Kate motzean:** Lake OiARBIDE.
8. **Erreportajea:** Arroatik Aralarra oinez ardiak eta artzainak.
12. **Kirola:** Goierritarra batela: neskak arraunlari.
16. **Erreportajea:** Ternuara euskal arrantzaleen arrastean.
20. **Gazteleku:** Ainhoa Mujika.
22. **Agenda.**
24. **Iragarkia laburrak.**
26. **Argazki zaharra.**



## Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,  
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta  
Zeraingo udalak





Iñaki Murua

**Lanean pittin bat gozaten ez duenak egunaren berena erretxinduta pasa behar duenak, ba al du zoriontsu izateko eta ingurukoei zoriontsu izaten uzteko aukerarik?**

## Aldatzeko gai izango ote?

**G**azte gera gazte ta ez gaude konforme, mundu berrigo bat sortu nahi genduke: gezurraren kontra; injustizirik ez... Gazte gera gazte ta ez gaude konforme” Hala zion zendu zaharra ez den Lurdesek sarritan abestu ohi zuen kantaren letrak. Hark ez dakit mundua aldatzeko lain egin zuen, nik ez dut nahi beste egin behintzat.

Hala ere, sekula ez dut etsi; beti pentsatu dut eta pentsatzen dut dena hobetu daitekeela eta nik ere dena hobetu dezakedala, neuregandik hasita. Gaizki dagoen zerbaiten aurrean amore ematea, beste gabe, buruari buelta batzuk eta aldatzeko zirrikituren bat aurki dezakedan begiratu gabe ez dut etsiko. Beste gauza bat da nahi dudana lortuko dudana ala ez.

Azken bi urteotan, ordea, kezkatuta nauka bizitzaren aurrean hain psikologia ahula agertzen duen hainbatek. Bereziki gazteenek. Hamasei urterekin nola sinets daiteke lana gogoz kontra egin beste erremediorik ez dagoela? Gainera, lanera gustura zatozela esaten diezunean barre egiten dute eta ez dute serio ari zatzaizkienik sinesten. Noski, irakasleok ez omen dugu golperik jotzen eta urte erdia oporretan pasa, horrela, normala omen da lanera pozik joatea. Nik esaten diet, badakitela zer egin!

Eta ez dira bat ez bi uste eta jarrera hori dutenak, gehienak baizik, tartean behin txertoa hartu eta gaitz horrekin (gogoz kontrako lanarena) bizi beste erremediorik ez bagenu bezala. Esanak esan, ezin diet kaskezurrean sartu, hainbeste ordu, egun eta urte gogoz kontra, odol txartuta, lau xoxen truke, bizirik irauteko, jarduteak ez duela ez buru eta ez hanka. Baina ez dute ikasi nahi.

Xapre, zaldibitar trikitalari eta filosofo praktikoak arrazoi izango du azkenean,

zera dionean: “Guri esaten ziguten: ikas ezazue bestela bizi guzia gu bezala lanean madarikatzen aritu beharko duzue eta, hala ere, ez genuen ikasten. Eta zuek esaten diezue: ikas ezazue bestela ez duzue lanik izango eta! Nola nahi duzue ikasten saiatzea gainera gero, bizi guzirako, lanera joan behar izateko?” Gainera gogoz kontra baldin bada, nola ba?

Egiten duguna ohituraz egiten dugunean, zertarako den ez dakigunean, asezten ez gaituenean, zertarako segi egiten? Zertarako bortxatu geure burua, eguna joan eta eguna etorri, zentzurik ez duten gauzak egitera. Aldatu edo saiatu aldatzen, gutxienez. Lanean pittin bat gozaten ez duenak –eta zortzi ordu egin behar baditu egunean– egunaren herena erretxinduta pasa behar duenak, ba al du zoriontsu izateko eta ingurukoei zoriontsu izaten uzteko aukerarik? Eta horrelako bizitzak ba al du zentzurik?

Sinestera iritsi diren bigarrena zera da, hogoita hamar edo berrogeita hamar urtean bankuen neska edo morroi izatea beste biderik ez dela. Eta egia esan, horiei ihes egiten ez dago erraza! Baina ezinbestekoa al da etxea jabetzan izatea, gure aitona amonek ez al zuten bizitza maizter pasa? Ezin al da Udala gazteen eta herriaren etorkizunaz beste era batera bustiarazi? Geu promotore gara, taldea osatu eta ezin al da etxebizitza dezentez merkeago eskuratu eta esperientzia berri pila ezagutu, gremioekin eta gainerakoekin negoziatuz?

Gauzak ez dira errazak inorentzat baina hain erraz ametitzea ez gara aldatzeko gai, horrela izan direla eta izango direla, ezin dut haserretu gabe eraman, errebelatu gabe amore eman. Eta gazteagoa izan nintzen.

**IÑAKI ARIN**  
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

**B E A S A I N**

  
**GUKlan**  
BAINUKO OSAGAIK  
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933  
Nafarroa Etorbidea, 27  
**BEASAIN**

Tailerra:  
Okorro, 6  
**ORDIZIA**

# Ibaialde programa

Landarlan ingurumen taldeko kideak, maiatzaren 13an, Oria ibaiaren ekosistemaren informazioa biltzen ibili ginen, Ibaialde programaren barne. Igartzako ibai eremua aukeratu genuen duen ondare kulturalarengatik: jauregi, errota eta Dolarea baserria. Landaredia, fauna, zaborrak eta uraren kalitatea aztertu genituen, honetarako parametro biotiko eta abiotikoak kontutan izanik.

**Uraren** kalitatea neurtzeko, alde batetik parametro abiotikoak: nitrato eta nitrato kontzentrazioa, pH, temperatura, O<sub>2</sub> erabili ziren. Parametro biotikoetan bioindikatzailak bilatu ziren, erreka harrietan bizi diren animalia ornogabeak kasu honetan. Bi parametro hauen emaitzen arabera uraren kalitatea ona da. Herriko ur zikinak araztegi bideratzen eta industri isurketak ere murriztu diren uraren kalitatea asko hobetu da.

**Landaretza.** Aukeratu-tako ibai eremua herrigunetan dagoenez eta ibaiaren bideratzea dela eta, ibai ertzak ez daude egoera egokian. Erreka berezko basoa suntsiturik dago eta zaborrak ugariak dira. Topatutako espezie botanikoen arte-



an zuhaitzak topatu genituen: platanondoa, pikondoa, haltza, lizarra, sahatsa. Bestelako landareen artean: sasia, lupuloa, irusta, menta, plantago, belarra. Kanpoko espezie inbaditzaileak ere aurkitu genituen ibaiertzean, budejia eta sasi akazia.

**Fauna.** Errekako ornogabeak ez ezik, onnodunak ere begizatu genituen. Berezko basoa egoera txarrean dagoenez biodibertsitatea eskasa da. Arratoiak, basahatea eta antzarak dira ugariak baina bestelarik ere bada: apo arrunta, uroiloa, loinak, buztanikara. Aipagarria da martin arrantzalea ere ikus daitekeela

ibaiaren, hau ere bioindikatzaile ona izanik.

Bestalde Oria Ibaiaren ertzak eta bazterrak, inguru honetan eta orokorrean, ez daude egoera egokian. Ez da ibaiertzeetako basoa behar bezala hazten uzten eta errespetatzen. Baso egokiak berezko fauna erakarri eta biodibertsitatea handituko luke. Kanpo espezieak azkar hedatzen ari dira bertakoen kalterako. Zaborrak ere, arazo larria dira. Aipagarria ere bada, ibai eremuan eraikitzen jarraitzen dela eta hori dela eta, uholdeak gertatuz gero lur horietan urak gainezka egingo lukeela. Urtero entzuten dira munduko herrialde askotan uholdeak sortzen dituen arazo larriak, ibai ertzetan eraikitzeak dituen ondorioak kontutan izaten ez direlako.

Ibaiaren kudeaketa zuzenak ibai ekosistema lehenatzea ekarriko luke eta ondorioz, datorren urteetan Ibaialde programaren emaitzak hobekitzeko. Hori da guk nahiko genukeena.

## JAKIN BEHARREKOAK



**Mugarik gabeko mendiak.** Alpeak eta Kantauri mendikateak lotzeko korridore ekologikoa sortzea onartu da. Natur gune bakanak epe luzean ez dute ekosistema eta biodibertsitatea zaintzen eta horregatik da hain garrantzitsua gune hauek elkarrekin lotzea korridore hauen bidez, espeziak zabaldu eta hedatu daitezen. Korridore honek Alpeak, Frantziako erdialdeko mendigunea, Pirineoak eta Kantauri mendikatea lotuko lituzke. 1.300 km. luze eta 212.000-km<sup>2</sup> lur eremuak osatuz.

**Kontserbazio-nekazaritza Nafarroan.** M<sup>o</sup> Jose Gurrutxaga ingeneri agromomaren doktore tesiaren arabera Nafarroako gune erdiidorrean, errentagarriagoa da zereal ustiapenetan kontserbazio-nekazaritza ohiko nekazaritza baino. Lurra ia ez da lantzen edo 15cm-raino bakarrik lantzen da eta aurreko uzta-aren hondakinak lurra estaltzeko erabiltzen da. Horrela lurra hezeago dago, higaduraren aurka eragiten du, propietate fisiko eta kimikoak hobetzen dira, herbizida kantitatea murriztu. Kontserbazio-nekazaritza erabiltzen den lurretan zizare gehiago daude, lurraren kalitate onen adierazle.

***Oria ibaiaren ertzak eta bazterrak, inguru honetan eta orokorrean, ez daude egoera egokian. Ez da ibaiertzeetako basoa behar bezala hazten uzten eta errespetatzen.***



Juan Manuel Garmendia  
Kattalin erretegia  
Beasain

**Osagaiak pertsona bakoitzeko**

- 8-10 bakailao kokotxa
- 5 pikilo piper
- Oliba olioa
- Gatza
- Azukre piska bat
- Perrexila

Pikilo piperrak olio, gatza eta azukre pixka batekin egin. Biguntzen direnean, laberako bandeja batean jarri behar dira bere salda piska bat eta olio tanto batekin. Labean sartu 200°C-tan 10 bat minutu.

Bakailao kokotxak plantzan egiten dira bi aldeetatik. Gutxi egin behar dira lehortu ez daitezen. Ondoren kokotxak pikiloen gainean jarri, txikitutako perrexila gainetik bota eta jateko prest dago.

Eguzkitarako betaurrekoak

AHOLKUA

Gaur egun saltzen diren eguzkitarako betaurreko askok ez dute inongo kalitate kontrolik pasatzen. Honen ondorioz gero eta jende gehiago dago begietako arazoekin, bai eguzkitarako filtro txarrak erabiltzeagatik, bai hauen erabilera okerragatik.

OMSek (Munduko Osasun Erakundeak) dioenez, uv izpien erradioazioek begiengan duten eragina eta ozono geruzaren kalitateak, kataratak azaltzea areagotzen du. Baita beste patologia batzuk ere: ultzerak, erretinan degenerazioak...



Nahiz eta gure begiek mekanismo asko eduki argi izpiez babesteko, defentsa natural hauek ez dira nahikoak, eta geroz eta beharrezkoagoa da eguzki izpiez babestea, baita filtro oneko betaurrekoak erabiltzea ere.

Umeen begiak adibidez oso sentikorrek dira eguzki izpiengan (uv). Beraz, oso garrantzitsua da umek filtro oneko betaurrekoak erabiltzea.

Gauza hauek guztiengatik, garrantzitsua da ondo informatzea eta kalitate oneko eguzkitarako betaurrekoak erabiltzea.



Ainhoa Arce Mendia  
Argi Optika

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN



**mazda**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

**Bikar, S. A.**

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN





“Zegama Aizkorri maratoiko ibilbidea betidanik ezagutzen dut eta gogortasuna da gehien erakartzen nauena”

#### **Zenbatgarren aldiz hartuko duzu parte Zegama-Aizkorri mendi maratoian?**

Aurtengo laugarren aldia izango da. Aurrenekoan ere parte hartzekotan nintzen baina ezbehar baten ondorioz ezin izan nuen.

#### **Zerk du Zegama-Aizkorrik, beste probek ez dutena?**

Ikusleengandik jasotzen diren animoak eta sortzen den giroa ikaragarria da, beste inon ez da horrelakorik izaten. Ibilbidea berriz, betidanik ezagutzen dudana da eta behar bada, bere gogortasunak erakartzen du gehien.

Antolakuntzari dagokionez eskertzekoak dira bidaltzen dituzten gonbidapenak, ondo hornitutako abituailamenduak, ibilbidearen seinalizazioa eta ondoren bidaltzen dizkiguten diploma, argazki eta kontrol bakoitzeko denbora.

#### **Zer iruditzen zaizu aurtengo izen-emate sistema?**

Nolako arrakasta duen ikusirik, nola-halako irtenbide bat eman behar zaio eta ez da erreza guztien gustokoa izatea. Neroni, denboraren arabera sartu nintzen, eta ez nintzen oso lasai egon zerrendan agertu arte.

#### **Zein da Zegama-Aizkorri probaren zatirik gogorrena?**

Bat baino gehiago dago, baina bat aipatzekotan Aizkorritik Oltzerainokoa izango litzateke, harri asko eta izugarritzko jaitsiera baitu. Zati honetan hankak erabat “hautsita” geratzen zara.

#### **Entrenamendu bereziak egiten aldituzu?**

Berezi-bereziak ez, baina kaminoan korrika egin edo mendian egin oso ezberdina da. Proba honetarako ordu asko ibili beharra dago mendian gora eta behera. Asteazkera, bi saio kaminoan eta bat mendian egiten ditut. Eta igandean, denbora gehiago dudanez, hiru bat ordu mendian egiten ditut.

#### **Urtean zenbat kilometro egiten dituzu?**

Gutxi gora-behera 3.200 bat km..

#### **Zein lasterketa duzu gustokoen?**

Aizkorrikoa eta Idiazabalgo krosa.

#### **Korrika ez den beste kirol bat?**

Txirindularitza. Maratoia bukatu ondoren hasi beharko dut semearekin ibiltzen, ziklista izateko amorratzen dago-eta.

#### **Korrikan argazki onik ateratzerik ba al dago?**

Korrikan behar bada ez, baina korrikalariei bai. Elgoibarko krosetan urtero aritzen naiz argazkiak ateratzen eta politikak aterata nago Martin Fizi, Bekeleri e.a.

#### **Argazkiak ateratzeko gustuko gaiak:**

Kirolak, erreportaiak, ezkontzak...

#### **Zure ustez, atera duzun argazkirik onena:**

Ez da erraza bat aukeratzea. Ordiziako Erdi aroko festan egin nuen erreportai, Joxe Marirekin batera, Aurtzaka dantza taldeari egindakoa, ezkontzarako hainbat ere...w

#### **Betiko argazki makina ala digitala?**

Digitala ikaragarritzko aurrerapena izan da argazki munduan baina bakoitzak bere abantailak ditu. Horregatik gaia-aren arabera eta momentuaren arabera bat edo bestea aukeratzeko dute.

#### **Argazki makina aurrean edo atzean?**

Atzean nahiago.

#### **Goierriko txoko bat?**

Arantzamendiko inguruak.

#### **Afizio bat:**

Baserrian badut fruta arbola mordoxka bat eta denbora dudanean haiek zaintzea gustatzen zait. Behar adina lan ematen dute baina gero gustora jaten ditugu hango gerezi eta sagarrak.



## Arroatik Aralarra oinez ardiak eta artzainak

*Inazio Armendariz 'Ernaitza'-k urtero egiten du bidea.*

**G**arai batean arrunta izaten zen, udazkenean eta udaberrian, bideetan, ardien joan-etorriak ikustea, trashumantzia bideetatik barrena. Gaur egun, gehienek ordea, kamioiez egiten dute ardien leku aldaketa. Gutxi batzuk dira, ohiturari jarraituz, trashumantzia egiten

duten artzainak. Horietariko bat, Zaldibia-ko Ernaitza baserriko Inazio Armendariz artzaina da. Negua Arroan, Zestean, pasatu ondoren, Aralarra itzultzeko irrikan harapatu ditugu, Arroan bertan, bai artzaina eta bai ardiak. Guk ere, trashumantzia bidea egin dugu zaldibiarrarekin batera.



**LOGOS**  
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako  
sukaldeak



Urriaren 23tik maiatzaren 19ra bitartean Zestoako Arroan egon dira Inazio Armendariz 'Ernaitza' artzaina eta bere ardiak. Neguan kostaldeko belarraz elikatu dira. Maiatzaren 19an, eguerdiko 12etan abiatu ziren oinez, bidez bide, Erriotik, Santa Marinatik, Itsaondotik barrena, Zaldibiara iritsi ziren larunbata eguerdian. Gaua Zaldibian pasa eta helmugara, azkenik, Aralarko Pabera, igandean, arratsaldeko 3ak aldean iritsi ziren. Arroan harrapatu genuen zaldibiara, trashumantzia egiten hasi aurretik.

15. negua izan du aurtan 'Ernaitza' artzainak Arroan egin duena. Arroako baserri batean alokairuan egoten da urritik



*Hainbat ardiri dunba jartzen zaie. Soinuaren erritmoan ardiak biziago eta errezago joaten dira.*



## Trashumantzia bidea

Udaberrian eta udazkenean, betiko trashumantzia bidea jarraitzen dute artzainek. Inazio Armendarizen kasuan, ostiral eguerdian abiatu zen Arroatik, Aralarra, igande eguerdi-arratsalderako iristeko.

Jarraian duzue, trashumantzia bidearen ibilbidea: Arroatik Aizarnara, Aizarnatik Erdoiztara, handik Erniora eta Erriotik Bidaniara. Bidaniatik Santutxura bitarteko zatia errepidez egiten dute. Santutxutik Itsasondora jaitsi eta handik Zaldibiara. Azkenik, Zaldibiatik, Aralarra. Santutxun pasatu zuten gaua. "Beti bide bera egin da. Bideak zikintzen ari dira. Txarrena, Bi-

danitik gorako hasierako zati hori dago". Dudarik gabe, bai artzainarentzat eta bai ardientzat, ibilbide gogorra.

Zenbat kilometro dauden galdetu diogu zaldibiarrari. "Kilometroen arrastorik ez daukat, baina orduak bai, asko. Kotxez 30-35 kilometro daude".

Ernion, Zelatunen, trashumantzia bidea egiten ari diren lau bat artzain elkar-tzea tokatu izan zaio 'Ernaitza'-ri. "Ernion gelditzen garenean, iluntzean, lagunarte ederra izaten dugu, lau artzain tokatu izaten dira eta batzutan. Despedidea hantxe egiten dugu", azpimarratu du.



**OSINALDE  
KARROZERIA**

Tel.: 943 887 048  
Faxa: 943 882 801  
Telleri z/g  
ORMAIZTEGI

iñAUSTI

N-1 errepidea  
lurre auzoa  
OLABERRIA

KARROZERIA

☎ 943 88 43 01



GERTU

ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN  
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33  
gertu@gertuasesores.com



**B**elarra badago oraindik hemen baina garaian garaikoa nahi izaten dute ardiek eta orain Aralarra joateko zain daude.



*Abiatu aurretik behorraren gainean biderako behar diren janari, edari, arropa, aterki eta abarrak prestatzen ari da Inazio Armendariz laguntzaileekin.*

maiatzera. Aurretik artzain nafar bat egoten zen. “7 hilabete Arroan eta 5 Aralarren. Aldrebes behar luke, baina!”.

Menditik kostaldera joateko ohitura ez da berria. “Inguruan belar asko du, negua ez da Ataun-eta bezala. Negua arinagoa da. Jana lehenago hasten da. Elikadurako gastuak jaitxi egiten dira. Kanpoko errekurtsioak hobeto aprobetxatzen dira”, zehaztu du artzainak.

Arroan ez du gaztandegirik eta esnea zentralari saltzen dio. Gaztak, mendian, Aralarren egiten ditu.

Goierrira, Aralarra itzultzeko gogo biziz harrapatu

genuen ‘Ernaitza’. “Ardiak ere desiatzen daude. Ardiak aspertu dira hemen. Belarra badago oraindik hemen baina garaian garaikoa nahi izaten dute eta orain Aralarra joateko zain daude. Udazkenean Arroara etortzeko desiatzen egoten diren bezala. Etortzeko garaian ere beraiek preparamen dira, ez daukate kalendario beharrik. Belarra zarkatu egiten da. Ez dago dudarik, maiatzetik urrira, artzainak eta ardiak gustuen, Aralarren gaude”, argitu du zaldibiarrek.

Belarra ez da denean berdina izaten. “Aralarren belarra gogorragoa da, fuertetagoa. Hemen Arroan

**BEASAIN:**  
300 m<sup>2</sup> eta 700m<sup>2</sup>-ko pabilioiak salgai, lursail eta guzti.  
**Tel.: 609 148 658**

**MUJIKA**  
LIBURUDENDA  
Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

belarra asko izaten da, baina makalagoa. Belarra jan egin behar da, makala izan edo fuerteagoa izan. Tripa betetzen badute ondo ibiltzen dira”.

### “Sufrimendua dago hor!”

Ertzaintzari baimena eskatu behar izaten zaio trashumantzia egin behar denarako. “Baimenik gabe, isun handia jartzen dute”. Eguna eta ordua zehaztu eta prest izaten dira ‘espediziorako’. “Espediziorik ez dago, hor sufrimendua dago. Ederra espedizioa!”. Lau bat lagun behar izaten dira zeregin honetarako, txakurraren laguntzaz gain, jakina.

Ardi herrenekin zer egingen jakin nahi izan dugu: “ahal den bezala moldatzen dira. Herren handiren bat baldin badauka kotxean edo erremolkean eramaten da”.

Ardientzat gogorra egingen da lekualdaketa. “Hanken azpiak gastatu egiten zaizkie. Etortzerakoan baino gehiago izurratzen dira joaterakoan. Hemen bigunago edukitzen dituzte azkazalak eta gastatu egiten zaizkie. Erre egiten zaie. Lau bat egun behar dituzte osatzeko. Etortzerakoan, ez dute ezer edukitzen, gogorrago egoten dira”.

Biderako, durbak jartzen zenbait ardiri. “Bizixea-go, errazago joaten dira”. Hori bai, “ardiak ohituta daude joaten, behin abiatuz gero, bakarrik joango liratenke, badakite nora joan behar duten”, azpimarratu du.

Ilea moztuta ikusi ditugu ardiak. “Lehen mendirako uzten zen lan hori baina orain martxo-apiril aldera egiten da. “Hala, mendira igotzerako ile berria pixka bat aterata izaten dute eta edozein eguraldi txar delata, babestuta egoten da”. Ilea moztuta joateak ere badu beste mesede bat: askotan ileak berak azkura ematen die eta hankaz gora jartzen dira eta saiak eta pu-



*Errepidez egin beharreko zatietan aurretik eta atzetik ertzain auto bana joatez gain, artzainak eta laguntzaileek segurtasun petoa jantzi beharra izaten dute.*

*Pasatzen diren lekuetan jendea etxeetako leibo eta ateetara ateratzen da durben soimua entzutean, hauetako bainbat ezagunak ditu Inaziok eta udazkenera arte agurtzen ditu.*



treak zain egoten dira erasotzeko. “Jende bati sinistea kostatzen da egiten zaio putreak bizirik ere jaten dituela ardiak, baina horrela da. Nik badaukat ardi bat, errapearen erdia putreak jandakoa”, azpimarratu du ‘Ernaitza’-k.

### Bizimodu lasaiagoa

Uda parte izaten da artzainarentzat urtarorik lasaiena, nahiz eta orduan ere geldirik ez diren egoten. Adibidez, uda partean ere itzultzen da ‘Ernaitza’ Arroara,

negurako ikuilua eta belarrak prestatzera. Ez du ez aspertzeko denborarik izango. Goizean jaiki, ardiak bildu txabolara, jetzi, esneak gatzagia hartu bitartean gosalduta, gazta egin, txabola ingurua txukundu, siesta pixka bat egin, ardiatara joan...

“Kaleko jendeak uste izaten du, artzainak mendira bakaziotara joaten garela. Aralarren txaletetan bizi garela, gainera dirua ematen digutela, uda han pasatzen dute...”

Komunikabideetatik jakin du Txindokiko bidea ere konpondu dutela, helikopteroekin harea eramanda. “Baina gu hor joan behar, bide zaharrean, direnak eta bi jotzen. Lurra behera jaisten ari da eta harri kozkorak gora doaz. Gorakoa hor nonbait, beheakoa, ardiak ume egiteko, harririk jotzen dituzte triparekin. Ondo iruditzen zaigu mendizaleentzat bidea konpontzea baina artzainek ere behar ditugu bide egokiak”, azpimarratu du.



*Ekainaren 18an Tolosan dute lehenengo lehiaketa*

# Goierritarra batela: neskak arraunlari

**B**ost neskek osatzen dute Goierritarra batela: Maialen Arrieta, Haizea Tapia, Oihane Garmendia eta Lorea Sanchez beasaindarrak eta Maria Litago, Olaberritarra. Beasainen bizi den Nikasio Garmendia oreindaindarra dute en-

trentzaile. Ekainaren 18an, Tolosan jokatu den batel txapelketan egingo dute estrenua, batel beltz-horiarekin. Orain arte Orion eta Adunan entrenatzen aritu badira ere, Arriarango urtegia izango dute hemendik aurrera entrenatzeko lekua.





# ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK


E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com)    [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia    OLABERRIA



**www.xetai.net**  
Zurgintza eta altzarigintza zure neurria  
Tel.: 658 70 99 22 Faxa: 943 88 85 41  
BEASAIN



**Nikasio Garmendia dute laguntzaile Goierriko arraunlariek.**

Oreindaingo Nikasio Garmendia arraunean ibilia da 9 urtean, Tolosan, Hernanin, Orion eta Donostian. Oraindik ere gertutik jarraitzen du arraun mundua eta sarritan lagun izaten du Oihane alaba ere. “Ni estropadatarara asko joaten naiz eta alaba ere bai. Probatu egin nahiko lukeela esaten zidan beti. Taldetxo bat elkartzen baziren, ahal nuen guztia lagunduko niela esaten nion. Neska batzuekin

hitz egin eta prest azaldu zen taldea. Errazena hastea zela esan nien, jarraitu egin behar dela, konpromisoa hartu behar zela. Konforme zeudela eta horrela hasi ziren”, adierazi digu Nikasio Garmendiak.

Tolosako Arraun Taldearen (TAT) izenean daude federatuta Maialen Arrieta, Haizea Tapia, Oihane Garmendia, Maria Litago eta Lorea Sanchez. 16-17 urtekoak dira, kadete eta jube-

nilak. Maria Litago da bate-laren patroia.

### Tolosan estrenua

Goierritarra batelak Tolosan, ekainaren 18an izango du estrenua, Sanjoanetan. 18an kanporaketa jokatu eta sailkatuz gero, 24an jokatu dute finala.

Tolosara, lana txukun egiteko helburuarekin doaz. “Gure helburua ez da Tolosan irabaztea, lan txukun bat egitea baizik, nahiz eta

azkena egin”, azpimarratu du Oreindaingoak.

18 bat batel izango dira lehian, Ori ibaian. Presa artifiziala jartzen ari dira. “Oso gaizki gabiltza, presa bota zuten eta ura gutxi dago eta. Adunan entrenatzen dugu. Presa altxa egin behar dute Sanjoanetarako. Obra egiten dutenean, presa puzgarriak jarri behar dituzte, Suitzan-eta bezala. Betirako utziko dute. Tolosan ikaragarritzko afizioa dago”.

Billabonako jaietan ere beste txapelketaren bat antolatzekotan dira eta Ikaztegiaren ere ari dira zerbaite-tan.

### Arriarango urtegia

Arriarango urtegiaren txapelketaren bat antolatzea izango litzateke Nikasio Garmendiaren asmoetariko bat. “Goierri Arriarango urtegiaren leku ona daukagu. Beasaingo festetan egin zitekeen zerbait baina berandu gabiltza. Edo ligaxkako kanporaketaren bat... Leku egokia izango litzateke”.

Beasaingo Udalarekin izandako harremanen ondotik, lortu dute Arriarango urtegiaren urtegiaren entrenatze-ko baimena. Orain arte, Orion edo Adunan entrenatu izan dute. “Neska batzuk futbolearen eta saski baloian dabilta. Orain arte, ostegunetan eta larunbatetan entrenatu izan dugu. Baina hemendik aurrera, egunero

**SOLOZABAL**  
AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako gida-baimenak**

**Aita Urdaneta**  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76

**gasteiz**  
*ileapaindegia*

Tel.: 943 88 05 83  
Hirigoien, 24 LAZKAO

**5 UNANUE GAZTETXORRI**

Andra Mari, 7 BEASAIN Tel.: 943 08 41 42

**BESTE BAT**  
**LOIS**  
**CIMARRON**  
**CALLATE LA BOCA**

**GURU**  
**CKS**  
**ROXY**

egin beharko dugu zerbait. Villabona eta Aduna tartean entrenatzen dugu. Orion hasi ginen, gutxieneko bat ikasi arte”, zehaztu du.

Zein ezaugarritako neskak diren egokienak galde-tuta, honako erantzun digu Garmendiak: “pisu handirik ez dezatela eduki eta luze samarra. Ahal dela, luzea eta arina, palanka luzearekin. Dena den, batelean denetik daude”.

18 urte arteko gazteekin hasteko ideia daukate, gazteei aukera berriak eskaintzeko helburuarekin. Beste neska eta mutil koadrila baina ere prest omen daude hasteko. “Herraminta asko behar dira eta ikusi egin beharko da”.

### Goierritarra

Goierriko lehenengo batela izango da Goierritarra. Hori eta beltz kolorekoa da goierritarren batela. Asmatu duten izena, gertukoa egin zaigu: Goierritarra. “Neska gehienak Beasaingoak badira ere, Beasain izenik ez zioten jarri nahi. Goierritarra proposatu eta horrela jarri diogu”, zehaztu du.

### Kontxa amets

Egunen batean Beasainen bertan arraun taldea sortu eta gazteak federatzea gustatuko litzaioke Garmendiari. Horrekin batera, badu beste amets bat ere: “neskak eta emakumeak ere ari dira traineruetan sartzen.



## Tolosa eredu

Tolosan zaletasun handia izan da betidanik. “Tolosan duela urte batzuk mugimendu handia zegoen bateletan, apustuak, lehiaketak... Uholdeak izan zirenean presak bota egin zituzten, Tolosakoa ere bai. Orduan utzi egin zuten antolatzeaz. Azkeneko lehiaketa hura guk irabazi genuen. Garai hartan arraunean ibili ginen talde bat elkartu eta berriz ere indartu egin behar genuela erabaki genuen. Ikaragarria izaten zen, Donostiako Kontxa izaten den bezala, Tolosan ere berdintsua izaten zen. Izugarritzko jende emana, hamabost egun lehenago hasten ziren apustuak... Berriz ere giro hura sortu nahi genuen”.

Gaur egun ere batel eta arraun giroa piztu nahi dutenen artean dabilta, Nikasio bera, eta berarekin batera arraunean ibilitakoak. Nikasiok hartu du, Goierri aldean ere arraun zaletasuna zabaltzeko ardura. “TAT duela bi urte sortu zen. Izugarritzko arrakasta izan zen. Ikastetxeetara ere jo genuen eta oso erantzun ona eman zuten. Hortik hasi ginen udalekin harremanetan. Ni Goierri aldean hasi naiz batel mundua pixka bat zabal-tzen”.

100 fitxa inguru ditu TAT taldeak eta “batel asko behar dira eta momentuan ezin dugu”, dio. Tolosako neska talde bat Euskadiko txapeldun atera da.

Orioren filiala da Tolosa. “Herramientak uzten dizkigu, eta arraunlari onen bat ateratzen bada Oriora joaten da...Orio beti begira dago, orain ere bi arraunlari eramango ditu Tolosatik”, zehaztu du Garmendiak.

Kontxako estropadaren inguruan ere badute asmoren

bat emakumezkoentzako beste lehiaketaren bat sor-

tzeko. Ametsa, neskak, horra iristea izango litzateke”.

**over** Urraki  
*Bidaietan adituak*

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**AMEBI**  
Sagardotegia

**Erretegi bezala zabalik**

- \* Eguneroko menuak
- \* Karta zerbitzua
- \* Ospakizunak
- \* Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

## DR. JOSE GISASOLA

3998 Elkargokidea



OSTEOPATIAN MEDIKUA

### BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA Lumbalgia, Hernia Diskala, Zefalea, Migraina, Artrosia, ATM

Osteopatia lumbalgia, hernia diskala, bizkarreko zein buruko mina, artrosia eta antzerako ondoezak, ezur eta nerbioetan sorturikoak, sendatzen dituen medikuntzaren espezialitatea da. Gure eginkizunekin zuzenki erlazionaturik dauden eta bizi kalitatean eragin handia izan ohi duten minak gainditzeko laguntzen digu medikuntzaren alor honek.

Jose Gisasola osteopatian medikua da eta urteak daramatza tratamendu naturalez baliatuz gisa honetako gaitzekin lanean.



**Aurrez hitzordua hartuta:**

**629 45 20 53 - [jgisasola@telefonica.net](mailto:jgisasola@telefonica.net)**

Andra mari, 13 Sol.Art. Ezk. / 20200 Beasain (Gipuzkoa)  
Urbieta, 39 - 1. Ezk / 20006 Donostia (Gipuzkoa) / T 943 471 885

reaktone




# ADDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK  
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea  
20200 Beasain Gipuzkoa  
T/F 943 027 626

DISEINUA SUKALDEAN

reaktone



Montxu Imaz ataundarra eta  
Ane Miren Miralles ordiziarra

# Ternuara, euskal arrantzaleen arrastoan

**A**ne Miren Miralles ordiziarra eta Montxu Imaz ataundarra irakasleak dira ogibidez. Zaletasunez, kirolariak. Batez ere, mendia dute gogoko; txirindua eta eskia ere bai. Baina Goierritik kostaldera joanez gero, arrauna ere probatu dute. Probatu baino

gehiago ere bai; ekainaren 1etik uztailaren 15era, Ternuako uretan, XVI. mendeko balea eta bakailao arrantzale euskaldunen azalean jartzen saiatuz, 1.200 milako itsasaldia egingo dute. Atzo ziren hegazkinez Ternuara joatekoak. Prestaketetan harrapatu ditugu.

# berriz

AMAYA ARZUAGA	FRENCH CONNECTION
MIRIAN OCARIZ	DIESEL
ISABEL MARANT	FOR ALL MANKIND
PAUL & JOE	ANTIK BATIK
HOSS	EARL JEANS
MISS SIXTY	SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

### SALMENTA PUNTUAK:

**Beasain:** Zuhaizpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..



‘Apaizac obeto’ espedizioan parte hartuko duten 7 marineren artean, goierritarrek dira: Ane Miren Miralles ordiziarra eta Montxu Imaz, Ataun San Gregoriokoa. Pasaia-Lezo Lizeoko irakaslea da ordiziarra, eta Oiartzungo ikastolako ataundarra.


Ane Mirenek badu esperientzia horrelako trabesia luzeetan. Irlandako itzulia, Galiziara joan eta etorria... egingo da Montxu berriz, berrira da. Gehienez ere, bi egunetako trabesiak egingo baita.

### Sei asteko espedizioa

6 astean, 1.200 milla, 2.000 kilometrotik gora egitea dute helburu. Ekainaren 1ean, Quebecoko Itsas Museotik aterako da ‘Beothuk’ bale txalupa, 6 marinelez eta patroiak osatuta. Zortzi metroko luzera eta bi metroko zabalera ditu ontziak. Pasai Donibaneko Ontziolan bertan egin dute, haritz egurrez. Kanada aldeko uretan hondoratuta dagoen Pasai Donibaneko San Juan galeoiko txalupen erreplika da ‘Beothuk’.

Txalupa eta laguntzarako erabiliko duten zodiac-a lehenago irten ziren Pasaia-tik. Marinelak atzo, maiatzaren 25ean ziren abiatzekoak, hegazkinez. “Gu barkua baino lehenago iritsiko gara. Ekainaren 1a aurretik, han ere gauzak egin behar ditugu. Barkuak uretan hondoratuta egon beharko du pare bat egunean. Barkua egin berria da eta Erabat lehortuta egongo da. Tablak tarte batekin jarri behar izaten dira, bustitzen denean eman egiten baitu egurrak. Orduan, orain itsasoratu, ura sartzen da. Utzi egin behar da eta egurra bere lekura joaten da. Belak jarri, masta jarri... izango dugu zeregina”, dio Ane Miren Mirallesen.

Espedizioan zehar, zodiac-a eramango dute laguntzarako. “Red Bay muse-



## Albaola elkarteak eta Ontziola

Pasai Donibanen dago Ontziola, Itsasontzi Tradizionalen Ikerketa eta Eraikuntza Zentroa. Bertan egin dute Ternuara eramanez bale txalupa. Itasontzi tradizionalak berreskuratzea dute helburu, Ane Miren Mirallesen adierazi digunez. Trainerak, batelak, txalupa handia, potina, galeoian eramaten zituzten txalupak, bi egin dituzte. “Galeoiek 6 txalupa eramaten zituzten eta bi egin ditugu momentuz. Balea harrapatzerako joaten ziren txalupen erreplikak dira. Hirugarrena Ternuatik etorritakoan egingo dute”.

### Berreskuratu eta erabili

Horixe da Ontziolaren helburua, “itsasontziak berreskuratzea da, baina ez museo batean egoteko, barkuei bizitza emateko eta erabiltzeko baizik”. Igandero egiten dituzte irteerak, goizeko 10etan eta edonork parte har dezake. Albaola elkarteak arduratzen da, ontziak dinamizatzeaz.

oarekin harremanetan gauden eta gure asmoa zen, laguntzarako, arrantzuntziren bat-edo lortu eta gure gauzak eramatea eta guk barkuan, eguneko gauzak bakarrik eramatea. Baina ez genuen lortu arrantzuntzia eta horregatik daramagu zodiac-a”.

### Garai ona

Garai ona da Ternuara joateko. Arrantzaleak ere, garai honetan joan eta udazkeneguan itzultzen ziren. Egualdiari baino gehiago, itsasoari erreparatzen diote marinerak, eta horixe da azpimarratutakoa. “Itsasoa baldintza onetan egotea da garrantzitsua eta ez ze egu-

raldi egiten duen. Hori bai, beste arrisku bat ere izango da: laino itxi-itxia. Berez, itsasorako garai ona da. Kantauri itsasoan, lainoa dagoenean haizerik ez da izaten eta arraunean joan behar izaten da. Baina Ternuan, laino itxiarekin ere haizea ibili daiteke eta arriskua areagotu egiten da”.

XVI. mendean ez bezala, noski, GPS-a, telefonoa, irratia eta segurtasun materiala badaramate zodiac-ean.

Espedizioa lehenengo zatian, Quebecetik atera eta San Lorenzo bitartean, mareak nahiko biziak izatea espero dute. “Marearekin, korrontearekin joan behar-

ko dugu. Eta kontra daukagunean, lehorreratu egin beharko dugu. Han ere iristeko eguna daukagu, uztailaren 15a. Red Bay Museoa ongi-etorria prestatzen ari da. Beraz, egun ona daukagunean aprobetxatu egin beharko dugu”.

### Labeak

Lurrean, lehorrean, lo egiten saiatuko dira. Euskaldunek lehorrean utzitako arrastoak gertutik ezagutu nahi dituzte. Euskaldunekin zerikusia duten herri izenak ba omen daude. Labeak ere bai. “Balea harrapatu, txikitu, eta olio egiten zuten labeetan, barrikatan berriz hona ekartzeko. Hemendik eramandako teilekin egiten zituzten labeak. Labeen azarna asko azaldu dira. Ezezaguna ziren teilak Ternuan, beraiantzat oso bixiak ziren. Tarteka, marinel gazteenak Ternuan uzten zituzten, labeetan lanean. Horregatik dago hain harreman aberatsa. Harreman estua zuten, elkarlanean ari-

**XVI. mendeko balea eta bakailao arrantzaleen bizimodura ahalik eta gehiena gerturatzea du helburua ‘Apaizac obeto’ espedizioak.**

## XVI. mendeko baliabideekin

XVI. mendeko balea eta bakailao arrantzaleen bizimodura ahalik eta gehiena gerturatzea du helburu 'Apaizac obeto' espedizioak. "Beraiek bezala sentitzen saiatu nahi dugu", diote. Txalupa, janaria eta arropa, XVI. mendean bezalakoak izango dituzte.

Ilarrak, babak, arroza, sagarrak, bertako frutuak (intxaurrak, pikuak, gaztainak...), bakailaoa, urdaiazpikoa, hirugiharra, sardina zaharrak, ogia, gazta...izango dituzte dietako jangaiak. "Txerriak, ardikia eta behikia gatzatua eramaten zuten barriketan. Guk ez dugu horretarako denborarik izan, beraz urdaiazpikoa eta hirugiharra eramango ditugu".

Ogia ere berezia eramango dute. "Legamirik gabeko ogia eramaten zuten, gogor-gogorra, haizerik gabe, bi aldiz egosita, eta patata bezala erabiltzen zuten, xerratan fin-fin moztuta", zehaztu dute.

Goierritarra aldizkariaren 293. zenbakian sagardoari buruz argitaratutako erreportajeaz azaltzen zenez, euskal marinela sagardoagatik ziren ospetsu. "Bai ala da, eskorbutoarean aurka egiteko edaten zuten, egunean pare bat litro. Guk ez dugu eramaterik izango, ezin dugulako barrikarik eraman, gure ontzia oso txikia baita. Eta sagardoa zahagietan hondatu egiten da, gasa egiten zaio. Garai hartan sagardoa eramaten zuten baina guk



*XVI. mendean balea arrantza irudikatzen duen koadroa. Kea, labeetatik ateratzen zena da-*

ez daukagu galeoirik horiek denak eramateko. Ardoa eramango dugu".

Eltxoak ere lagun izango dituzte bidaian. Eltxoak izutzeko baratzuria eramango dute.

### Sua

Janaria badaramate, baina janaria prestatzeko, XVI. mendean bezala piztu beharko dute sua. Horretan ere entrenatzen aritu dira, "harri batekin eta metal batekin erraz pizten omen da sua. Hala esaten dute".

### Arropak

Arropa bakarra eramango dute 6 asterrako, XVI. mendeko arrantzaleena bezalakoak. "Kanadan urperatutako gale-

oian azaldutako arropen erreplikak dira. Lihozkoak dira. Artilezko jertse bat, almadierok bezala, larru iledun mantala eta atzetik txapela. Euskaldunak jantziz ere ondo prestatuta joaten ziren eta eguraldiagatik batzuk arrantzara ateratzen ez zirenean ere, euskaldunak atera egiten ziren".

### Loa

Normalean, lehorrean lo egingo dutela uste dute, inolako dendarik gabe, belaren gainean-edo. "Saiatzen ari gara telak inpermeabilizatzen. Garai hartan lihoa erabiltzen zen eta esperimentatzen ari gara, erretxinarekin eta argizariarekin, mantak eta janariak ez bustitzeko".

tzen ziren", argitu dute.

### Harreman estua

Tripulazioko zazpigarrena, Ternuako Mi'kmaq indigena gaztea izango da. "Izugarrizko ilusioarekin dago. Telefonoz eta internet bidez ezagutzen dugu bakarrik. Gaztea da, arrantzalea... Oso ondo etorriko zaigu", zehaztu du ordiziarrak.

Garai bateko euskal arrantzaleekin harremana izan zuten indigenen tribuen berezko kultura eta ahozko tradizioa ere ezagutu nahi dituzte. "Asko jarraitu dute euskaldun arrantzaleen historia, asko ikertu dute, guk

baino gehiago. Beraiek guri gure historia kontatzea ere!... Libururik onenak hango idazleek idatzitakoak dira. Guk ere gehiago ezagutu nahi dugunez, hortik sortu da espedizio honen ideia", adierazi du ordiziarrak. "Ternuan, euskalduneko izugarrizko jakinmina eta miresmena dago, aztar-na asko azaldu baitira. Han dauden museoetan, euskaldunak azaltzen dira", gaineratu dute.

Euskal espedizioaz jakinmin berezi bat ba omen dago. "Han ere badute hizkuntzarekin sentsibilitate bat. Kmaq hizkuntza ere

galtzar dago eta berreskuratu nahian dabilen mugimendu bat badago. Beraiantzat euskaldunak eredu gara. Garai hartan ere, idatzita dauden dokumentuetan ikusten da harreman handia zegoela eta hizkuntzan ere bazeudela harremanak. Bai euskaran hango hitzak eta baita euskal hitzak han. 'Apaizac obeto' da espedizioaren izena. Hango indioek, zer moduz zeuden galdetuta eta 'apaizac obeto' erantzuten zuten. Euskaldunen batek erakutsi zien eta beraiantzat erantzun arrunta zen. Harreman horrek oraindik ere jarraitzen du".

### Dokumentala eta bideoa

Uztailaren 15a dute Red Bayra iristeko eguna. Ongi etorri jaialdia prestatzen ari dira elkarlanean. "Hango kultura eta hemengo kultura uztartuko dira. Bertsolariak, txalapartariak, dantzariak... joango dira Euskal Herritik", diote.

Jaialdia eta gainerako guztia, abenturak, pasadizoak, momentu zailak, goxoak... guztiak, dokumentalean eta liburuan bilduko dituzte. Argazkilaria zodiacean joango da. Idazlea, berriz, arraunean joango den Jon Maria zumaiar bertsolaria izango da.

## Lehorrekoak itsasoan

Pasai San Pedron autoa utzi, motora hartu, Pasai Donibanera pasatu eta Ontziola jartzen duen seinaleari jarraituz iritsi gara hitzordura. Ane Miren Mirallesen hartu gaitu. Espedizioan ataundar bat ere bazela esan digu orduan. Beranduxeago azaldu zaigu Ataun San Gregorioko Ramon Montxu Imaz.

Ane Miren Miralles ordiziarrak, Lezon bizi da eta Pasaia-Lezo Lizeoko irakaslea da. Montxu Imaz, berriz, ataundarra da. Oartzunen bizi da eta bertako Ikastolako irakaslea da.


### **Nolatan sartu zineten arraun munduan?**

**Ane Miren:** Ordizian Jakintza ikastolan 7 urte egin nituen, gero Pasaia-Lizeora etorri nintzen. Ni beti mendi zalea izan naiz baina itsasoa gertu dagoela probatzeko aukera izan nuen. Hasi eta hemen jarraitzen dut. Ordurako egina neukan Hiru Pauso, piraguz. Oraindik ere mendia oso garrantzitsua da niretzat. Neguan, eskiatzera joaten naiz.

**Montxu:** Lehen ere ibiliko zen ataundarren bat itsasoan! Ez zen nire asmoa aurtengo udako. Baina Aste Santuan, Ane Mirenek proposatu eta emaztearekin kontsulta eginda gero, banoa. Hauek adina ez naiz ibili baina jaietan egiten ditugun irteeretan parte hartzen dut. Orain dela 3 urte ibaietako ibilbideetan ere parte hartu izan nuen. Gehienez ere bi eguneko irteerak egin ditut.

### **Montxu, zuretzat lehenengo esperientzia da, zer espero duzu topatzea?**

**Montxu:** Ez dakit. Aurrekoan ere esaten zuten hartzak ere inguruan izango direla. Horiekin ez topatzea espero dut. Bere zailtasunak izango ditu espedizio-



*Ane Miren Miralles eta Montxu Imaz.*

ak, gerta liteke zailagoa eta errazagoa. Hainbeste egun eta goazen planean, nahiko zailtasun gertatu daitezkeela uste dut. Beldur gehien hotzari eta euriari diot, gordetzeko ere ezer gutxi daukagu, soinean garai bateko jantziak daramazkigu, eta ez dakit bustiarekin nola moldatuko garen. Zerbait asmatu beharrean izango gara beharbada. Orain arte asmatu izan dute eta asmatuko dugu zerbait.

### **Nolako entrenamenduak egin dituzue?**

**Ane Miren:** Bakoitza bere aldetik entrenatzen ari da. Ni korrikan ibiltzen naiz.

**Montxu:** Ez dugu entrenatzeko denborarik. Entrenatzeko, zailtzeko eta ne-

katzeko denbora izango dut. Hemen denborarik ez daukagu azkeneko prestakuntzekin gabiltza-eta. Hemen beti zerbaitetan ari gara, korrikan, mendian... espezifikoki horretarako ez dugu entrenatu.

**Ane Miren:** Lehenengo eguneko eskuko eta ipurdiko babak inork ez dizkigu kenduko, arraunean oso gutxi ibili gara eta. Gorputza nekatuko da baina buroak hartzen duen arintasuna ikaragarria da.

### **Zein ondorio aterako duzue duzue?**

**Ane Miren:** Bizitza gogorra zela haiena. Joan gabe ere, irakurrita bakarrik, badakigu horrela dela. Itsasontzi asko daude han hondoratu-

ta. Klima oso gogorra zen.

**Montxu:** Gaur egun nahiz eta haiek bezala joan, ezin duzue konparatu inoiz, neurri batean bakarrik jarri zaitezke beraien neurrian. Mapak ere, beraiek eskuz egindakoak ziren, joan ahal. Benetan haiek ziren abentureroak, guk dena, ia dena, kontrolatuta daukagu.

### **Lehenengo egunetan beste bizimodu batera moldatu beharko duzue. Gauza askotaz gogoratuko zarete.**

**Montxu:** Aterpea, ur beroa, koltxoia...

**Ane Miren:** Okerrena lehenengo egunak izaten dira. Lehenengo egunetan dena daukazu faltan, baina gero eta gutxiagorekin pasatzen ikasten da. Oso aberatsa izaten da. Konturatzen zara, gero eta gutxiagorekin moldatzen zarela.

### **Zeri diozue beldurrik handiena?**

**Ane Miren eta Montxu:** Bustiari beldur dezente diogu, XVI. mendean bezala jantzita joango gara eta.

**Lehenengo egunetan dena daukazu faltan, baina gero eta gutxiagorekin pasatzen ikasten da. Oso aberatsa izaten da.**

*Ainhoa Mujika beasaindarra, bertsolari gaztea*

## “Bertsolaria izatea da nire ametsa”

14 urte ditu, 15 egiteko. Beasainen bizi eta Ordiziako Jakintza ikastolan dabil DBH 4 mailan. Ikasturte honetan, sari bat baino gehiago irabazi du bertso idatzietan: Mutrikun, Mungian, Beasainen Goierriko onenaren saria eta azkena, Sabino Arana saria. “Lehen ere idazten nuen baina ez nuen saririk irabazten”, aitortu du Ainhoa Mujikak.

### **Zertan hobetu duzu edo zer aldatu duzu?**

Mutrikun lortu nuen sariko bertsoak ez ziren hain onak nire ustez. Baina besteek egindako bertsoak ikusten dituzunean, ikasi egiten da. Moldeak hartzen dira. Orain gehiago ere saiitzen naiz. Lehen azkar-azkar egin nituden.

### **Bat-batean ere aritzen zara. Orain arte, Eskolarteko txapelketan, Goierriko taldean aritu zara.**

Aurten, handien mailan arituko naiz, bakarka. Urretxun, maiatzaren 26an daukat kanporaketa.

### **Orain arte, taldean kantatu duzue eta orain bakarrik egin beharko duzu.**

Bai aldea badago. Orain arte, 3 bertso kantatu behar izaten ziren eta orain, 5 edo 7.

### **Finalean sartzeko esperantzarik ba al daukazu?**

Ez, lehenengo urtea da-eta. Ez daukat zer eginik. Saiatuko gara, baina...

### **Noiz hasi zinen bertsoetan?**

Orain dela 4 urte hasi nintzen.



*Sabino Arana sariari esker, Valentzia aldera joango dira irabazle guztiak ekainaren 22an. “Bi lagun eramateko aukera daukat eta gurasoak eramango ditut. Sariren bat jasotzera joaten garenean, aitak, gasolina ordainduko ote dudan galdetzen dit txantxetan. Orain, hor daukate saria”.*

### **Nondik datorkizu bertso zaletasuna?**

Ez dakit. Txarra nintzen ni bertsoetan. Eskolartekoak etortzen ziren eta gaia emanda bertsoak idatzi behar genituen. Asko kostatzen zitzaidan. Baina aita bertso zalea da eta hark abesten zizkidan bertsoak. Pixkanaka ni hasi nintzen eta ikastolan bertso eskolako papera eman zigutenean, izena ematea pentsatu nuen. Aitari bertsoa gustatzen zaio eta saltsan ibiltzen da.

### **Nor duzu irakasle bertso eskolan?**

Aitor Sarriegi.

### **Bat-batekoa ala idatzizkoa duzu nahiago?**

Beharbada bat-batekoa baina idatzizkoa ere gero eta gehiago gustatzen ari zait.

### **Zeri buruz idazten duzu?**

Normalean gai librekoak izaten dira eta errazagoa egiten zait gai tristeetara joatea. Esan nuen zerbait berria asmatzen hasi behar nuela baina beti tristera jotzen dut.

### **Zein neurri duzu gogokoen?**

Zortziko txikia ez zait gustatzen, motz bezala gelditzen naiz eta. Idatzizkoetan neurri luzeak erabiltzen ditut, baina bat-batekoan, hamarreko handia gustatzen zait gehien.

### **Gustuko bertsolari bat:**

Amets Arzallus gustatzen

zait. Baina ez daukat gogokoena, bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu. Sustrai, Egaña...

### **Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalean izan al zinen? Imajinatu al zenuen zeure burua han goian?**

Bai! Ez nintzen imajinatzen, saiatu bai baina...

### **Bertsolari bezala zein da zure helburua?**

Nire burua ez dut bertsolaritzat. Helburua izango litzateke, Eskolarteko txapelketetako lau urteotan finalean pasatzea. Zail samarra.

### **Eta ametsa?**

Bertsolaria izatea. Edo behintzat, bertsoarekin zerkusua duenean jarraitzea.

# ARANDIA

## Garajea

N-1, z/g  
Iurre Auzoa

**OLABERRIA**

☎ 943 88 09 47

**LADA**  
Ssang Yong

**AUTOEN KONPONKETA**

## PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,  
umeen,  
bikoteen eta  
sexologi  
tratamenduak

autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako **mintegiak**

**Goierri  
ekainak 13  
ORDIZIA**  
Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia:  
**18:00-20:00**

## Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren **Teknologia Berriek** Enpresa Txikien kudeaketan.

Gure **denbora** eta enpresako **baliabideak egoki kudeatzeko** modua erakutsiko dizugu. **Koordinatzeko**, gehiegizko lekualdaketak ekiditeko eta baliabideak erabiltzerakoan **denbora eta dirua aurrezteko**, kostu baxuko **soluzioak** (baita doakoak ere) erakutsiko dizkizugu.

Informatzeko eta izena emateko:

**943 747 314**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)

[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



**Miramón**  
Enpresa Digitala

Sustatzailak:



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioak Foral de Gipuzkoa



**euskadi**  
Informazio gertuen • en la sociedad de la información



**e-gipuzkoa**



# Nazaret zentroa

[www.nazaretzentroa.com](http://www.nazaretzentroa.com) - Aldakoenea, 36 - B° Egia  
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384

# N<sup>Z</sup>

Irakaskuntza ertain  
eta lanbiderakoak  
Enseñanzas medias  
y profesionales

## Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

## Lanbide Zikloak

### Goi Mailako Zikloak

- 1 Administrazioa eta Finantzak
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

### Ziklo Ertainak

- 1 Administrazio-Kudeaketa

**Ikasgaiak euskaraz,  
erdaraz eta ingelesez  
ematen dira**

## JARDUNALDI IREKIAK

Hilabetea	Martxoa		Apirila		Maiatza	
Eguna	24	25	28	29	26	27
Ostirala	●		●		●	
Larunbata		●		●		●
Ordua	18h.	11h.	18h.	11h.	18h.	11h.



**kutxa**, lankidetzako gizarte ekintza

Ordizia

## Patxi Zubizarretaren literatur ikuskizuna

Poltsikoko Ikuskizunen barruan, gaur, maiatzak 26, Barrenan, gaueko 10,30etan, literaturaren inguruko ikuskizuna izango da. Patxi Zubizarretak prestatutako gidoi bat ardatz harturik, Txema Garces konposatzailer eta baxu jotzaileak musika berria egin du testu bakoitza ilustratzeko, eta jo ere kontrabaxua joko du; saxoa Josetxo Goia-Arribere musikariak joko du.

Zegama

## Zegama-Aizkorri mendi maratoia igandean

Maiatzaren 28an jokatu da V. Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Munduko lasterkari onenak izango dira bertan. Goizeko 9etan, Zegamako plazatik abiatuko dira korrikalariak.

Altzaga

## Altzagarateko jaia

Maiatzaren 28an, igandea, ospatuko da Altzagarateko jaia. Eguerdiko 12etan Meza Nagusia eta ondoren egunean zehar Zabale, Larrañaga eta Mendizabal trikitilari eta bertsolariak izango dira.

Ordizia

## Euskal dantza ikastaroa

Ekainaren 15ean eta 22an, euskal dantza ikastaroa izango da, Hitzaro euskara elkarteak eta Udaleko Euskara zerbitzuak antolatuta. 16 urtetik gorako gazte hasiberriei zuzenduta dago ikastaroa, eta Jakintza Ikastolako Haur Hezkuntzako eraikinean, 18:30etatik 20:30etara egingo da. Izena, ekainak 2 baino lehen eman behar da, 943-805622-943-162366 telefonoetan.

Ordizia

## XV. Lazkao-Txiki bertsopaper lehiaketa

Ordiziako Argi Berri Elkarteak Ordiziako Udalaren laguntzarekin antolatu du Lazkao-Txiki bertsopaper lehiaketa, hamabosgarren aldiz. Oinarriak kaleratu dituzte dagoeneko.

### Lehiaketa hiru mailatan banatzen da:

● **Gaztetxoan maila:**

13 urte artekoentzat (2006an 14 betetzen ez dituztenentzat). Neurria eta doinua libreak izango dira, ez ordea gaia. Gaia 'Amaitzera doan ikasurtea' izango da. Gutxienez 2 eta gehienez 4 bertso idatzi behar dira.

● **Gazteen maila:**

14-18 urte artekoentzat (2006an gutxienez 14 eta gehienez 18 urte betetzen dituztenentzat). Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi behar dira. Gaia, neurria eta doinua bezala, librea izango da.

● **Helduen maila:**

1987an edo aurretik jaiotakoentzat. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi behar dira. Gaia, neurria eta doinua libreak dira.

Lanak 2006ko uztailaren 1aren aurretik bidaliko dira ondorengo helbide honetara: Argi Berri Elkartea (Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa), Gipuzkoa Kalea 15-behea, 20240 Ordizia.

### Sariak

Sari banaketa irailaren 10ean egingo da, Ordiziako Euskal Jaian barruan. Maila bakoitzeko hiru sari emango dira. Garaileek, Txiki-a bana jasoko dute. Gaztetxoetan, irabazleak 200 euro jasoko ditu; bigarrenak eta hirugarrenak, 100 eta 50; gazteen mailan, garaileak 300 euro jasoko ditu eta beste biek, 200 eta 100 euro; helduetan azkenik, lehenengoarentzat 500 euro daude zain, eta bigarrenarentzat eta hirugarrenarentzat, 400 eta 300 euro.




**ANZIZAR, S. A.**



**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

**Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN**  
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



**Hirigoien, 8A LAZKAO**  
943 087 913

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239



**Lurrindegia eta opari gaiak**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

# Erizain laguntzailea

Osasun familia.

A-D erduetan



**Aurrematrikula:**

ekainaren 1etik 7ra

**Matrikula egiteko epea:**

ekainaren 30etik uztailaren 6ra



### TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

### IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),  
lantegietan egiten den prestakuntza  
barne (400 ordu).

### LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

J.M. Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara Bidea z/g.

Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403

E-posta: [jmiparragirre@edunet.es](mailto:jmiparragirre@edunet.es)

[www.iparragirre.net](http://www.iparragirre.net)

## MULTIOPTICAS

### 1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

Eguzkitarako edozein betaurreko erosten duzula ere,  
MultiOpticasek

erloju zoragarri hau  
**OPARITUKO DIZU**

Eta orain eguzkitako betaurreko graduatuak 65 €-tan



Promozio hau 06/05/01etik 08/08/03ra egongo da indarrean, eta 150.000 erlojuaren muga da.  
Honako hauek sartzen dira promozio-prezio honetan:  
Bonardi armazotak eguzkitako betaurreko graduatuak + foku bakarreko 2 lentz zif. banda, inerru bako girts (ez degradatuak)  
+ 2 est. s6 (est. eta zil.-ren batura).

R.P.S. Nº 190/04 LL.G.



J. Carlos Guerra 1 Tel.: 943 79 29 95 <b>ARRASATE</b>	Ibargarai 16 Tel.: 943 76 15 75 <b>BERGARA</b>	Bidebarrieta 2 Tel.: 943 20 05 22 <b>EIBAR</b>	C/ Nueva 15 - GROS Tel.: 943 32 66 49 <b>DONOSTIA</b>	Koldo Mitxelena, 7 Tel.: 943 51 78 11 <b>ERRETERIA</b>	Mendibil M. G. Tel.: 943 63 99 01 <b>IRUN</b>	J.M. Barandiaran Enp. Tel.: 943 88 99 88 <b>ORDIZIA</b>	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 <b>TOLOSA</b>
---	--	--	---	--	---	---	---

## Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira, hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da [www.goierrikohitza.info](http://www.goierrikohitza.info) webgunean.

## Harremanetarako:

943 88 96 12

943 16 00 56

[goierritarra@topagunea.com](mailto:goierritarra@topagunea.com)  
[gh@goierrikohitza.info](mailto:gh@goierrikohitza.info)

**Ikaskide**  
irakaskuntza zerbitzuak  
Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120  
[www.ikaskide.net](http://www.ikaskide.net)

### IKASKETA TEKNIKAK

- ✓ Irakurmena
- ✓ Azpimarraketa
- ✓ Eskema
- ✓ Laburpena
- ✓ Buruz ikasi
- ✓ Azterketa prestatu

### INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

### INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

### ETXEBIZITZAK

#### salgai

**Zaldibian** pisu ederra salgai. 665731067.

#### errentan hartu

**Goierrin**, pisu bila dabil senar-emazte bikotea. Presazkoa da. 20:00etatik aurrera deitu. 697717189.

#### elkarbanatzeko

**Beasainen**, alokairuko pisua osatzeko, pisulagun arduratsu bila nabil. 699757010.

#### errentan eman

**Saloun**, apartamentua alokatzten da, igerilekuarekin eta hondartzatik gertu. 'Michelan-gelo' eraikuntza. Ekaina, uztaila, abuztua eta iraila. 943027417.

**Nafarroan**, Urederraren sorburuaren eta Urbasaren ondoran, landetxea alokatzen da. As-teburuetan, zubietan, oporretan. Handia. 948539381-616537765.

**Apartamentua** alokatzen da. Oso berezia, oso polita. 943880044.

**Jakan**, apartamentua alokatzen da udan. Igerilekuarekin. 943885674 - 943216684.

**Ezkarain**, apartamentua alokatzen da, udan. 678344604.

**Miami Playa (Tarragonan)**, 4-6 pertsonentzat apartamentu ondo hornitua alokatzen da. Uztailaren 22tik abuztuaren 19ra, asteetan edo hamabostaldietan. Hondartzatik gertu eta igerilekua eta parking pribatua. 656711747, arratsaldeko 7etatik aurrera.

### ANIMALIAK

#### salgai

**Ahuntzak** salgai. 630621153.

**2 zaldi eta 3 behor** bere umeekin saltzen dira. 662279939. 20:00etatik 22:00etara deitu.

**Hezitako zaldi** kapatua eta pottoka pinttoa salgai. 660966609.

### LOKALAK

#### salgai

**Beasain erdigunean**, denda salgai, bi erakusleiho handirekin. 2 pisutakoa. Aukera asko. 619456317.

**Zegaman**, 126 m<sup>2</sup>-ko etxebeha alokatzen da biltegi bezala erabiltzeko aproposa. 616411142.

### IBILGAILUAK

#### erosi

**Erabilitako furgoneta** erosi-ko nuke. 676929453.

#### salgai

**Citroen Saxo VTS - 16 v**, autoa salgai. Egoera onean. 630153983.

**Opel Kadett GT**, 1.800 l autoa salgai. SS-AH. 606837355.

**Fiat sando 2.0** furgoneta salgai. 110 zaldi. 2003 urtekoa. 605726596.

**Volvo 240 GL Polar** (familia-rra) salgai. Karrozeria eta motorrez oso ongi. Merke. 677510718.

**Volvo V70 D5**, autoa salgai. 2002 urtekoa, 167 zaldi. 639179821.

**Nissan Almera 1.4 LX**, egoera onean, 87 zaldi, SS-BD, prezio ekonomikoa. Gauean deitu: 943028388.

**Honda Civic 1600 vtec** salgai. 110 zaldi. Gorria. 2003 urtekoa. 30.000 km. 11.000 euro. 943180374.



kutxa



## BESTELAKOAK

### salgai

**Etxeko hainbat tresna** salgai: Junkers ur-berogailua, garbigailua, hozkailu konbia, plater garbigailua, etxe barneko atekak, eta bainu konpletua. Guztia gutxi erabilia. Ia berria. Oso merke. Arratsaldeko 3etatik aurrera. 667937875.

**Trikitixa anplifikadora** salgai, Sanmizk markakoa. 2 mikrofonekin. 1.500 euro. 12 lagunentzako mahai obalatu opari. 637914126.

**Intxaurrezko** armairua, bitri-na, mahaia eta bi banku salgai. Antikuario armairua ere bai. Modu onean. 657797754.

**Baxujole** bila dabil Beasaingo musika talde bat. Esperientzia badu hobeto. Jotzeko gogoia baduzu deitu, konpromisorik gabe. 609214919. Aitor.

**Pigini c-220** akordeoi botoiduna salgai. 943025908.

**Negutegi** edo inbernadoreen egiturak salgai, 2 eta 3 tuneletakoenak, Ormaiztegin. 943883157.

**Solariuma** salgai. Egoera ezin hobean. 200 euro. 626503990.

**Quinny silla** salgai, Hiru gurpilduna, bere zaku eta guzti. 120 euro. 685722403.

**2 sofa**, plaza bakarrekokoak, salgai. Bat, relax motakoa da. Berri-berriak. Modu onean. 943085224. 13:00etatik 16:00etara edo 20:30etik aurrera deitu.

**Logela salgai:** 1,35eko ohea, somierra, 1,90ko armarioa, 2 mesanotxe, 4 kaxoi eta ispiludun tokadorea, eta aulkia. Oso egoera onean. Prezioa, 60.000 pezetan. 20:00etatik 22:00etara deitu. 2 kortina eta lanpara bat opari. 636370101.

## LANA

### eskaerak

**Urretxuko taberna** baterako langileak behar dira. 615769049 - 943722009.

**Beasaingo ileapaindegi** baterako profesionala behar da. 696105476.

**Sukaldaria** behar da Tolosako taberna batean, plater konbinatuak eta pintxoak egiteko. 646022959.

**16-20 urte arteko** gaztea behar da, Beasaingo garaje batean lanean ikasteko. 943887252.

**Pertsona bat** behar da Psikologian gabinetarako. Psikologia eta logopedia duena; edo psikopedagogia eta logopedia duena; edo heziketa berezia eta logopedia duena. Kurrikuluma bidali: Ordiziako Arana kalea, 5-baxua.

**Sukalde laguntzailea** behar da, astelehenetik larunbatera, eguerdiz lan egiteko, eguneko menuetarako. 677500352 (17:00etatik aurrera deitu).

**Zerbitzari** esperientziaduna behar da Ordizian. 687609093.

### eskaintzak

**Bi neska** eskaintzen dira, orduka garbiketan aritzeko: etxebizitzak (garbiketa osoak), sukaldeak, tabernak, atari eta eskaratzeak (bizilagunen atariak), lokalak, obrak, e.a. Eskarmentu handia. 657719617 - 943683057.

**Administrari laguntzailea** eskaintzen da, dendetan-edo arratsaldez lan egiteko. 615731348.

**Gizonezkoa** soldatzaile lan bila dabil. 627707961.

**Ostalaritzan** lan egingo nuke. 627707691.

**Sukaldari laguntzaile** bezala lan egingo nuke. Esperientziaduna. 627707691.

**Emakumea** eskaintzen da, autoarekin, lan ez kalifikatueta-rako. (Garbiketak egiteko, adineko pertsonak zaintzeko...). 678781985.

**Asteburuetan informatika** klaseak emateko neska eskaintzen da. 2 urteko esperientziarekin. 679556586. Gauzez deitu.

**Neska** prest dago gauetan adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. 616889923.

**Emakumea** prest dago garbiketarako egin eta umeak zaintzeko. Autoarekin. 626695216.

**Emakumea** prest dago gauzez adineko zaindu edo etxeko lanak egiteko. 617769791.


**Emakumea** prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. 647896460.

**Emakumea** prest dago adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. 679890464.

**Emakumea** prest dago adineko pertsonak edo garbiketa lanak egiteko. 943087145.

**Emakumea** prest dago garbiketarako egin edo haurrak zaintzeko. 676593155.

**Neska euskalduna** eskaintzen da administrari lanak egiteko, harreragintzan, telefonoa hartzen... 625702851.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak



**SILVIA MIRAS CASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

### OHARRA

Silvia Miras Casayas Hartz Klinikako zuzendaritzak bere bezeroei eta herritar guztiei, kontsulta itxiko dela eta sortu diren zurrumurruek aurrean, guzti gezurrezkoak direla jakinarazi nahi die. Klinikak orain arte bezala jarraituko du lanean.

Tel/faxa: 943 88 92 87  
SAN INAZIO, 2 - BEASAIN

# ARRIETA

## JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02  
**OLABERRIA**



**Gabiriako 70 urtetik gorako pertsonak 1977. urtean**

Ander Iurritak utzi digun argazki hau 1977ko azaroaren 27an Gabiriako Osinalde elkarteak, herriko 70 urtetik gorakoei eginiko omenaldikoa da.

**Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera:** Batiste Maiz (Eguzkitza), Juan Jauregi (Etxe Haundi), Pedro Murua (Izar Haundi), Lontxo Oñatibia (Arane Txiki), Tomax Azarola (Mandiola), Pedro Uribe-Etxebarria (Atagoiti).

**Erdiko ilaran:** Maria Arzelus (Agerreberri), Fortunata Mendiguren (Zantagoiti), Poloni Alzueta (Oñatibi Haundi), Juan Joxe Arrondo (Oñatibi Haundi), Joxepa Uranga (Arrondoenea), Luzia Agirrebengoa (Ugarketa), Antonio Garmendia (Noare-Etxeberri), Maria Galdos (Etxeberritxo), Martina Mujika (Gorostarzu Azpi), Teodoro Galdos (Etxeberritxo), Juana Idiazabal (Etxeberritxo), Joxepa Goia (Jauregi), Joxe Bixente Izuzkiza (Jauregi).

**Beheko ilaran:** Maria Lekuona (Aunditegi), Joxepa Mendizabal (Etxetxo), Kandida Alzueta (Izar Erdi), Petra Pikasari (San Esteban), Xerapio Elosegi (Oñatibi Txiki), Maria Apaolaza (Oñatibi Txiki), Mariana Garin (Arane Txiki).

**ALDANONDO GARAJEA**

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,  
engrasea


Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

“Eguneroko ogia, ogi bereziak  
eta pastel ezin hobekak”



**OKINDEGIA  
GARIONA**

K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



# OIANGUREN BHI

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

Altamira Auzoa z/g ORDIZIA  
Tfnoa.: 9438 880 862  
012282aa@hezkuntza.net  
www.oianguren.net

## HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)

Iraupena 2000 ordu (2 ikasturte)

- Haurren mundura gerturatzeko.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
  - > Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegiak, Ludotekak...
  - > Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.



**AURREMATRIKULA EPEA: Ekainaren 1etik 8ra**

**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK. DISEINUA PROIEKTUA BAINUA HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



# Goi Mailako Tolosaldea L.H. Institutua



## ESKAIN TZA AKADEMIKOA

### ARAUTUA

### Goi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazio bidezko produkzioa.
- Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea.
- Metal-eraikuntza.
- Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak.
- Administrazio eta finantzak.
- Informatika-sistemen administrazioa.



### Erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazioa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.

### EZ ARAUTUA

- Langileen etengabeko formakuntza. Kualifikazio profesional sistemako ikastaroak. Doan. Mekanika, soldadura, elektrizitatea, informatika, administrazioa.
- Langabetuen formakuntza.

Telefonoak: 943 651 147 (Josune)  
943 650 664  
E-mail: [idazkaritza@tolosaldea.com](mailto:idazkaritza@tolosaldea.com)  
Webgunea: [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

### AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 7ra

### MATRIKULA EPEA

Ekainaren 30etik  
uztailaren 6ra

## INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE

- Iaz Ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
- Lankidetzaz hitzarmenak 150 enpresekin.
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromezu hartzen dugu.

**Ikastetxe honetan kalitatea ez da moda bat,  
gauzak hobeki egiteko era baizik**

9 urte ISO 9002 eta 4 urte zilarrezko Qarekin irakaskuntza hobetzen.  
Lehenengoak IIP ziurtagiriarekin lankideen kudeaketa egokia bermatzen.